

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4514

AGINDUA, 2014ko urriaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko 2014rako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena eta deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua arabera, Euskadiko Autonomia Erkidegoak eskumen osoa du gazte-politikaren alorrean. Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoak, bestalde, gazteen alorreko ekintza zuzenak garatzeko eskumena, besteak beste, esleitu zien Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunei bere 7. artikuluan. Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen. Dekretu horren 10.1.h) artikulua Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari egotzi zion Gazteriaren arloa. Apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen zituen eta, horren arabera, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari dagokio gazteriari loturiko arloetako eginkizunetan jardutea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko gazteria esparruan jarduerak suspertzeko lanetan dihardu beste zenbait erakundekin batera. Helburu hori lortu nahian, Euskadiko Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei beren gazte-ekipamenduen sarea bultzatzeko laguntzak eskaintzeko bideak ezartzen dira agindu honen bitartez.

Autonomia Erkidegoko gazteriaren alorrean eman nahi den bultzada hori gazteria sustatzeko beste neurri baten moduan planteatzen du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, hau da, Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeei Euskadiko gazte-ekipamenduen sarea handitzeko eta hobetzeko laguntza moduan.

Hori horrela izanik, honako deialdi honen bitartez, bi helburu lortu nahi dira batez ere: alde batetik, diru-laguntzen deialdi guztietan izan behar diren objektibotasun, partaidetza eta publikitate printzipioak bermatzeko oinarri legalak ezartzea eta, bestetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diru publikoak era egokian erabiltzen direla jakin ahal izateko bideak finkatzea.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, beren gazte-ekipamenduak eraiki edo hobetu nahi dituzten Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak eta toki-izaerako udalaz gaindiko erakundeak diru-laguntzez baliatu ahal izateko moduko esparru zabala diseinatu nahi dugu. Muga bakarra, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan arlo honetara zuzendutako diru-kopurua bera izango da.

Hori dena kontuan izanik, honakoa,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Gazte-ekipamenduak eraikitzeko, handitzeko edo hobetzeko diru-laguntzak emateko modua arautzea eta horietarako deialdia egitea da agindu honen xedea, beti ere ondorengo baldintza eta betebeharrak aintzakotzat izanik.

2. artikulua.– Tramitazio elektronikoa.

1.– Entitate interesdunek prozedura honetarako izapide guztiak bitarteko elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta burutu ahal izango dituzte.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak aurrez aurre nahiz elektronikoki izapidetzeko xehetasunak honako egoitza elektronikoa aurki daitezke:

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2014/gazte_ekipamenduak/eu/

3.– Eskabidea egitean eta dokumentazioa entregatzean bide bat hautatuz gero –aurrez aurre nahiz elektronikoki–, prozeduraren hurrengo urratsetan ez da zertan bide hori berori erabili, eta edozein unetan alda daiteke batetik bestera.

4.– Eskabidearen osteko izapideak elektronikoki burutzeko, <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak> helbidea erabili behar da.

3. artikulua.– Diru-baliabideak.

Deialdi honen xedea betetzera zuzenduko diren baliabide ekonomikoak xede horretarako aurrekontuetan ezarritako kredituetatik etorriko dira, guztira 290.000 euro alegia.

4. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Euskadiko Autonomia Erkidegoan berezko nortasun juridikoa duten toki-erakundeek eta berezko nortasun juridikoa duten udalaz gaindiko mankomunitate edo erakundeek –indarreko legeriaren arabera udal batek baino gehiagok eratuta egon eta nortasun juridiko berezkoa dutenak– jaso ahal izango dituzte soil-soilik agindu honetan adierazten diren diru-laguntzak. Udalaz gaindiko erakunde horiek, bakoitzaren estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, bidezko gaitasuna eta egokitasuna erakutsi behar dute, beren proiektuak behar bezala aurrera eramateko, dagokien jardun-eremuaren baitan.

2.– Ez dira erakunde onuraduntzat joko udalaz gaindiko erakunde baten zatia izan arren erakunde horren izenean eskatutako proiektuaren antzeko beste bat bere kasa aurkezten duten toki-erakundeak, beren izenean aurkezten duten hori udalaz gaindiko erakundearenean atxikita egon bazitekeen.

3.– Ezingo dute deialdi honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, laguntza publikoak lortzeko zigorrak duten erakundeek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute diru-laguntzarik eskatu sexu-bereizkeria dela-eta zigorrak duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

5. artikulua.– Entitate eskatzaileak betekizun eta betebeharrak jakinak egiaztatzea.

1.– Ordezkararen nortasunari eta hirugarrenen altari dagozkion datuak eskuratu edo egiaztatze baimena organo kudeatzaileari espresuki emateko aukera izango dute diru-laguntza eskatzen

duten entitateek eskabidean, izapideak bai aurrez aurre egiten dituztenean, bai elektronikoki egiten dituztenean, betiere Herri Administrazioaren egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenei kalterik egin gabe.

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua aplikatuta, eskabideari erantzukizunpeko adierazpen bat atxikita, honako betebeharrak hauek egiaztatuko dira:

a) Entitate eskatzailea zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta ez egotea eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez egotea; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren (otsailaren 18ko 4/2005) Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

b) Eskabidean bertan eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak direla eta laguntza horien onuradun izateko indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Halaber, honako betebeharrak buruzko erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko dira:

a) Entitate eskatzaileak dagokion finantziarioari aurre egiteko beste kreditu duela.

b) Administrazioetatik nahiz erakunde publiko zein pribatuetatik helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskuratu direla komunikatzea, hala badagokio.

c) Diru-laguntzaren xede izango den ekipamenduak aplikatu daitezkeen arloko araudi osoa betetzen duela.

d) Erakunde eskatzailea diru-laguntzaren xede den ekipamenduaren jabe dela.

6. artikulua.– Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak eta jasotzerik ez dutenak.

1.– Diru-laguntza jasotzeko modukoak izango dira berriaz 12 eta 30 urte bitarteko gazteen-tzako ekipamenduak izango dituzten higiezinak eraiki, eraberritu, egokitu edo handitzeko lanak egiteko profesional gaituek landutako proiektuen erredakzio-laneko gastuak, bai eta lan horiek exekutatzeko gastu edota kostuak ere. Gastu horiek guztiak 2014ko ekitaldikoak izango dira.

2.– Kasu guztietan, erakunde eskatzaileak gutxienez kostu osoaren % 30 finantzatu beharko du bere funts propioekin. Ez dira horrelako finantziariztat hartuko erakunde eskatzailearekin lotuta ez dauden instituzio publikoek emandako diru-hornidurak, diru-laguntzaren helburua betetzeko asmoz jaso badira.

3.– Ez dira inola ere diruz lagunduko erakunde eskatzailearen pertsonal propioaren gastuak.

4.– Artikulu honen arabera ez laguntzeko moduko gastu edo kostutzat jotzen diren horiek agertzen badira erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan, edota laguntzeko modukoak izanik ere ezarritako muga gainditzen badute, Epaimahai Kalifikatzaileak ezabatu edo araztu egingo ditu gastu edo kostuok, diru-laguntza kalkulatzeko beharrezkoa den oinarritzko gastu-aurrekontua zehaztu ahal izateko.

5.– Agindu honen aplikazio-esparrutik kanpo gelditzen dira jarduketak hauek:

a) Izaera edo helburua kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren jarduera-esparruekin zuzeneko zerikusia ez dutenak.

b) Patrimonializa daitezkeen elementuetan inbertsioak edo gastuak egiteko xedea ez duten jarduerak. Hartara, berariaz, kanpo geratuko da altzarien eta beste edozein hornikuntza-materialen erosketa edo konponketa.

c) Hartzaileak nortzuk diren argi eta garbi identifikaturik ez dutenak.

d) Eskabide batean jarduera bat baino gehiago sartu eta horiek izaera ezberdinetakoak diren kasuetan, ez bada banaka azaltzen jarduera bakoitzari zein helburu, hartzaile eta inbertsioen edo diru-sarreraren eta gastuen edo kostuen aurrekontu dagokion.

e) Erakunde eskatzailearen edo Eusko Jaurlaritzaren edo horren menpeko beste edozein erakunderen jabetzakoak ez diren lokalei dagozkien egitasmoak.

f) Dagokion legeria aplikagarria betetzen ez duten lokalak.

g) Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak onartutako «Gazte ekipamenduak definitzeko eta sailkatzeko proposamena» dokumentuan jasotako tipologiekin bat ez datozen lokalak: www.gazteaukera.euskadi.net/gaztebehatokia

7. artikulua.– Proiektuak gauzatzeko epea.

Diruz lagundutako proiektuek 2014ko urtealdian hasi behar dute edota dagoeneko hasiak egon, eta, gainera, amaiera-data eduki 2014ko abenduaren 31 baino lehen.

8. artikulua.– Epaimahai kalifikatzailea.

1.– Aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat osatuko da. Hona zeintzuk izango dituen kideak:

– Epaimahaiburua: Nestor Arana Arabaolaza, Gazteria arduraduna.

– Bokala: Bakarne Zuazua Astarloa, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako teknikaria. Ordezkoa: Fco. Javier Gutierrez Paramo, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako teknikaria.

– Bokala: Lourdes Ramirez de Ocariz, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako teknikaria; idazkari moduan jardungo du. Ordezkoa, Josu Gerediaga Egurrola, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzako teknikaria.

2.– Eskarien azterketa eta ebazpen-proposamena: deialdi honetan ezartzen diren balorazio- eta esleipen-irizpideak kontuan hartuta, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol zuzendariari. Gainera, beharrezko irizitako dokumentazio guztia eskatu ahal izango dio eskatzaileari, betiere alde zuzenetik jakinarazita eta 10 egun balioduneko epea emanda.

9. artikulua.– Laguntzak banatzeko sistema.

1.– Deialdi honi lehiaketa bidez emango zaio ebazpena. Eskabideak lehentasunen arabera sailkatu eta ordenan jartzeko orduan, segidan ezarritako hautaketa- eta balorazio-irizpideak hartuko dira aintzakotzat. Nolanahi ere, laguntza jasotzeko beharrezkoa izango da 40 puntutik gora jasotzea.

2.– Kasu bakoitzean eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, Epaimahai Kalifikatzaileak eskatutako zenbatekoaren ehuneko jakin bat ematea proposatuko du; hain zuzen, ezarritako irizpideak aplikatu ostean lortzen diren puntuen arabera izango da ehuneko hori. Ehuneko lortzeko formula hau aplikatuko da:

$$100 \times (\text{puntuazioa} - 40) / 30$$

Lortutako puntu-kopurua 70 baino gehiago denean, eskatutako zenbateko osoa ematea proposatuko da. Edozein kasutan, 11. artikuluan diru-laguntzen zenbatekoari eta mugari buruz ezarritakoa errespetatuko da. Formula aplikatu ondoren eskuratzen den zenbatekoari dagokionez, gertueneko zenbaki osorantz biribilduko da, hala badagokio.

3.– Aurreko puntuan ezarritakoari jarraiki zehazten diren diru-laguntzen zenbatekoak batuta deialdi honetarako esleitutako baliabide ekonomikoak gainditzen badira, diru-laguntzen zenbatekoak proportzionalki murriztuko dira.

4.– Aurrekontua eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa aztertu ondoren egiaztatzen bada sarrerak gastuak gainditzen dituztela, eskatutako zenbatekoa murriztu egingo da, jardueraren aurrekontua orekatuta geratu arte. Halaber, aurrekontuan diru-laguntza jaso ezin duten gastuak sartu direla egiaztatzen bada eta ezin bada zehaztu eskatu den zenbatekoaren eta berez dituzten sarreraren zein kopuru sar daitekeen horien barruan, eskatutako zenbatekoa eta berezko sarrerak proportzionalki murriztuko dira.

5.– Epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerari emango zaion laguntza eta zeini ukatuko zaion. Berdin egingo du epaimahai kalifikatzaileak eskabide berean izaera ezberdinetakoa jarduerak badaude eta denak laguntzen ez badira edo denak baztertzen ez badira, hots, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamenean zehaztu egingo du zein jarduerari emango zaion laguntza eta zeini ukatuko zaion.

10. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

Deialdi honetara aurkeztzen diren toki-erakundeek jaso dezaketen diru-laguntza honako irizpide hauek aplikatzearen ondorioz sortutakoa izango da:

a) Eskabidea aurkeztu duen erakundeak jarduera horretarako dituen sarreraren eta jarduerarako aurrekontu osoaren arteko proportzioa, berezko baliabideen ehunekorik handiena baloratuz: % 20 gehienez. Ez dira aintzat hartuko, aurkeztutako aurrekontuan, erakunde eskatzailearen pertsonal propioaren kostuak edo gastuak eta ez dira sarrera propioetat hartuko erakunde eskatzailea ez beste instituzio publiko baten ekarpen ekonomikoak.

b) Jarduketaren hartzaileen adina. Horri dagokionez, proiektuaren adin-tartea zenbat eta zabalagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da balorazioa. Gehienez ere % 20 jaso daiteke, 12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako proiektuei dagokiena.

c) Beste herri-administrazio batzuekin koordinatzeko mekanismoak: % 15eraino.

d) Proiektuak zenbateraino bultzatzen duen garatzen deneko gazteriaren arloa: % 20eraino.

e) Laguntza-eskabideari dagokion ekipamendua hurrengo urteetan ere gazteei zuzentzen jarraitzeko konpromisoa hartzea. Balorazio hau erakunde eskatzailearen konpromisoaren urte-kopuruaren arabera kuantifikatuko da, % 10eraino.

f) Proiektuaren lurralde-eremua eta mugakide diren ingurune edo eskualdeetako kolektiboetan izan dezakeen eragina: % 10eraino.

g) Proiektuan genero-ikuspegia integratzea: % 5eraino.

11. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak eta mugak.

1.– Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak aurkeztzen den proiektu bakoitzaren aurrekontu onartuaren % 70eraino irits daitezke.

2.– Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, aurkeztzen den proiektu bakoitzari ematen zaion laguntza ez da inoiz izango 75.000 euro baino handiagoa.

12. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuek helburu berbererako emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Gain-finantza-ketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

2.– Erakunde eskatzaileek laguntzagai diren programetarako jaso edo eskatu dituzten beste eskabide guztien zerrenda aurkeztu beharko diote Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari, erakunde emailea eta emandako diru-kopurua aipatuta –erantzunaren zain badago, eskaturiko diru-kopurua–. Horrelakorik jaso edo eskatu ez badu, hori adierazten duen dokumentua aurkeztu beharko du.

13. artikulua.– Eskabideak eta formularioak aurkeztea.

1.– Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera.

2.– Eskabidea eta eskabidean erantsi beharreko dokumentazioa, gorago jasotako erantzukizunpeko adierazpenak barne hartzen dituztenak, euskadi.net egoitza elektronikoa eskura dauden inprimaki normalizatueta beteko dira.

3.– Erakunde berak proiektu bat baino gehiago aurkeztu nahi badu, eskabide-inprimaki bat, eskabidean erantsi beharreko dokumentazio eta guzti, aurkeztu beharko du proiektu bakoitzeko.

4.– Erakunde eskatzailearen lege-ordezkarari den pertsona fisikoak sinatu beharko ditu eskabide-inprimaki horiek eta eskabidean erantsi beharreko dokumentazioa.

5.– Eskabideak bertatik bertara aurkez daitezke, behar bezala eta osorik beteriko eskaera-orri normalizatu baten bidez, Gazteria eta Kirol Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Herritarrentzako Arretarako Guneko bulegoetan (Zuzenean), edota 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Eskaera-orria euskadi.net guneko honako helbide elektronikoa honetan eskura daiteke:

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2014/gazte_ekipamenduak/eu/

Era berean, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, euskadi.net-en egoitza elektronikoa, alegia,

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2014/gazte_ekipamenduak/eu/atarian.

6.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dagokion dokumentazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dute. Prozeduraren baitan erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko Euskararen erabilera normalizatzeko oinarriko 10/1982 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek ezarritakoaren arabera.

14. artikulua.– Diru-laguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskabide-inprimaki bakoitzarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

a) Erakundearen ordezkari legalaren nortasunaren egiaztagiria.

b) Proiektua hasi eta bukatzeko aurreikusitako data, proiektuaren memoria zehatza eta proiektuaren diru-sarrera/inbertsioen eta gastu/kostuen aurrekontu banakatua eta xehatua, euskadi.

net-en egoitza elektronikoa eskura daitekeen inprimaki normalizatuaren arabera. Bertan, honako alderdiak zehaztu beharko dira:

– Proiektua gauzatzeko egutegiari dagokionez, berariaz adieraziko da proiektua hasteko eta bukatzeko aurreikusten diren datak; edozein kasutan ere, 2014ko abenduaren 31 baino lehenagokoak izango dira.

– Proiektuaren memoria zehatzean hautaketa, balorazio eta zenbaketa irizpideak gertatzen diren frogatuko da, agindu honetan xedatutakoa betez, eta gutxienez hurrengoak utziko dira jasota: helburuak, proiektuaren hartzaile izango direnen adin-tarteak, beste herri-administrazio batzuekin koordinatuta jarduteko baliabideak, proiektuak zenbateraino bultzatzen duen gazteria arloa, erakunde eskatzaileak hurrengo ekitaldietan laguntza eskatzeko xede diren jarduerekin eta epe luzera izango dituen baliabideekin jarraitzeko hartu duen konpromisoa, lurralde eremua eta eragin-eremua mugakide diren alde edo eremuetako taldeetan, eta genero ikuspegiaren integrazioa.

– Proiektuaren diru-sarrera/inbertsioen eta gastu/kostuen aurrekontu banakatua eta xehatua orekatua izan behar da, hau da, diru-sarreraren edo inbertsioaren zenbateko osoa (deialdi honetan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari eskatu zaion zenbatekoa barne, baita, hala dagokionean, helburu eta urte berbererako edozein erakunde publikok zein pribatuk emandako edozein diru-laguntza ere) gastu edo kostu osoaren zenbateko bera izan behar da. Horrela ez bada, Agindu honetan laguntzak banatzeko sistema jasotzen duen 9 artikuluan ezarritakoa beteko da.

– Udalaz gaindiko erakundeek, aurreko idatzi-zatietan azaldutakoaz gainera, sorrera arauak edo, hala dagokionean, erregistro publiko egokietan inskribatu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

c) Lanak gauzatzeko proiektuan, gutxienez honako hauek sartuko dira: memoria, kokapen eta espazioen banaketari buruzko planoak eta ekipamenduaren ezaugarrien eta egingo diren lanen deskribapen zehatza, edo, lanak txikiak izanez gero, burutuko diren lanen xehetasun teknikoan ale bat.

d) Erakunde eskatzailea Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egon beharko da. Erregistratuta egon ezean edo Ogasun eta Finantza Sailaren Hirugarrenen Erregistroan agertzen diren banku-datuak aldatu nahi izanez gero, http://www.euskadi.net/r33-2288/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/hirugarrenaren_alta.html helbideko formularioa erabili beharko da.

e) Eskabidea baloratzeko aurkeztu nahi den dokumentazio osagarria.

2.– Artikulu honetan adierazitako dokumentazioaz gainera, erakunde eskatzaileak aurkeztu duen proiektua egokiro baloratzeko beharrezkoa irizten duen informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dio Epaimahai Kalifikatzaileak.

15. artikulua.– Kudeaketa organoa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari dagokio deialdi honen bidez emango diren diru-laguntzak kudeatzeko lanak egitea.

16. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo

aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

17. artikulua.– Ebazteko prozedura.

1.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol zuzendariak, deialdi honetako diru-laguntzak esleitzeko ebazpena emango du, Epaimahai Kalifikatzailearen proposamena ikusi eta gero.

2.– Ematen den ebazpena sei hilabeteko epean jakinaraziko zaie interesdunei, Agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera. Ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta gora jotzeko errekurtoa jar daiteke bere aurka, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena gauzatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

3.– Ebazteko epea igarota interesdunei ebazpena jakinarazten ez bazaie, dagokion eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Horrek ez du Administrazioa salbuesten, ordea, ebazpen adierazia emateko duen obligaziotik.

4.– Publizitatearen printzipioa zuzen betetzeko, eta interesdunei espresuki eta banaka jakinarazteko beharra alde batera utzi gabe, iragarki bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, agindu honen babesean emandako laguntzak jaso dituzten erakundeen zerrenda jasoko duena, laguntzen diru-kopuruak eta destinoak barne.

5.– Erakunde onuradunei laguntzak ematea eta, hala dagokionean, horien ordainketa, baldintzaturik geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espedientea hasi baldin bada eta oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

18. artikulua.– Diru-laguntza jasotzen duten entitateen betebeharrak.

Agindu honetan ezarritakoaren arabera araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten entitateek honako betebeharrak izango dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunek berriaz uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat emango da.

2.– Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

3.– Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

4.– Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek berriaz aipatuko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzaren laguntza izan dutela, diru-laguntza emateko ebazpenaren berri dutenetik hasita, diruz lagundutako jarduera edo egitaraua dela-eta argitaratzen dituzten egitarau, iragarki-kartel, argazki eta idatzizko zein gainerako multimedia material guztietan. Material horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira. Gainera, diruz lagundutako jardueraren ondorioz sortzen diren liburu, liburuxka edo kartelen ale bat aurkeztu behar dute beren kontura edo,

bestela, horien kopia euskarri fisiko edo magnetikoan, materialaren izaera edo euskarriaren egokitasunaren arabera. Konpromiso honetatik salbuetsita egongo dira behin jarduera bukatuta eskabidea aurkeztu eta diru-laguntza jasotzen duten erakundeak, baita diru-laguntza eman zaiela jakinarazten dien komunikazioa behin jarduera bukatuta jasotzen duten erakundeak ere.

5.– Diruz lagundutako jarduerak, programak edo ekipamenduak ordaindu behar den zerbitzu edo produkturen bat eskaintzen badu, erakunde onuradunak abantailak eskainiko dizkie, batez ere ekonomikoak, Gazte-txartela dutenei.

6.– Oro har gazte-politikaren alorrean eta, baita ere, diruz lagundutako jarduketara, programa, zerbitzu edo ekipamenduekin loturiko alorretan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak jartzen dituen aplikazio informatikoak erabiltzea.

7.– Oro har Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak deitutako gazteen alorreko bileretan parte hartzea, bai eta diruz lagundutako jarduketarekin lotura dutenetan ere.

8.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak oro har gazteen alorrean, bai eta diruz lagundutako jarduketarekin lotura duten alorretan ere, eskatzen dizkion datu estatistikoak ematea.

9.– Diruz lagundutako jarduketarekin zerikusia duten guztietan sexismorik gabeko hizkera erabiliko dela bermatzea.

10.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak kontsultatzeko hala eskatzen duenean, honako dokumentazioa jartzea haien esku:

a) Ekipamenduaren kudeaketa-proiektua (antolamendu-egitura, jarduera-programazioa, gazteek parte hartzeko bideak eta abar).

b) Obra-kontratuaren esleipen-erabakiaren hitzez hitzezko ziurtagiria.

c) Lanen zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jasotzen duen ziurtagiria.

d) Lan-hasieraren aktaren kopia.

e) Sektorearen araudi aplikagarriak hala eskatzen duenean, lortutako lizentzia edo baimenen kopiak.

11.– Diruz lagundutako jarduketan gorabeheraren bat gertatuz gero, organo kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio. Organoak, hala dagokionean, behar diren egokitzapenak egingo ditu, indarrean dagoen araubidearen arabera.

19. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

1.– Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengoa, diru-laguntzaren % 50ekoa, diruz lagundutako inbertsioaren % 50 burutzeko gastua benetan egin dela egiaztatu ondoren, eta bigarrena, gainontzekoa, diruz lagundutako inbertsioa guztiz burutzeko gastua benetan egin dela egiaztatu ondoren, hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2.– Justifikazioan ez bada erakunde eskatzaileak hitz emandako baliabide propioen ehunekoa behar bezala jasota geratzen, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diru-laguntza ehuneko horretaraino murriztuko da.

3.– Gauzatutako inbertsioak edo gastuak gainditzen badu hasieran planteatutako gastuen aurrekontua, diru-laguntza kuantifikatzeko ez da gehituko emandako laguntzaren zenbatekoa.

20. artikulua.– Justifikazioak aurkezteko tokia eta modua.

1.– Justifikazioak bertatik bertara aurkez daitezke Gazteria eta Kirol Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), Herritarrentzako Arretarako Guneko bulegoetan (Zuzenean), edota 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

2.– Era berean, justifikazioak <http://www.euskadi.net/nirekudeaketak/> atarian aurkeztu ahal izango dira bitarteko elektronikoaren bidez.

21. artikulua.– Emandako laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu behar diren dokumentuak.

1.– Diruz lagundutako inbertsioak bi epetan justifikatu behar izango dira: lehenengoa, inbertsioaren % 50ari dagokiona, 2015eko urtarrilaren 8a baino lehen, erakunde eskatzailearen idazkariaren edo ekonomia eta finantza arloko arduradunaren ziurtagiria aurkeztuz; bigarrena, inbertsioaren gainontzeko % 50ari dagokiona, 2015eko martxoaren 31 baino lehen, hurrengo dokumentazio hau aurkeztuz:

a) Lagundutako jarduerari buruzko txosten xehatua, exekuzioa, betetze-maila eta ebaluazioa azaltzen dituen,

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2014/gazte_ekipamenduak/eu/ egoitza elektronikoan eskura daitekeen ereduaren arabera.

b) Erakunde eskatzailearen idazkariaren edo ekonomia eta finantza arloko arduradunaren ziurtagiria, aurreko paragrafoan adierazitako helbidean eskura daitekeen ereduaren arabera, non laguntzaren xedea bete dela egiaztatzen den eta jarduketaren balantze osoa ere aurkeztuko da, zehatz-mehatz banakatuta zein izan diren diruz lagundutako proiektua garatzearen ondoriozko kostua edota gastua eta diru-sarrerak edota inbertsioak. Berariaz adierazi behar da datu horiek errealitateari egokituta daudela. Inbertsio edota diru-sarreraren zerrendan bereizi egingo dira erakunde eskatzailearen ekarpenari dagozkion zenbatekoak; baita, hala dagokionean, edozein pertsona fisiko, juridiko, publiko nahiz pribaturen diru-sarrerak edota inbertsioak ere. Deialdi honen itzalpean emandako kopurua adieraziko da; xede berarentzat eman diren bestelako laguntzak zehaztuko dira, nahiz eta eskabidea aurkeztean ez jakin eskuratu diren ala ez. Ziurtagirian bertan adierazitakoez gain xede berarentzat beste diru-laguntza edo laguntzarik eskatu edo jaso ez bada, berariaz azalduko da.

c) Halakorik badago, lagundutako ekintzen inguruan sortu eta zabaltzen diren liburu, txosten, liburuxka, kartel eta gainerako euskarri idatzizko, soinu- edo ikus-entzunezkoen ale bana, edo horren kopia bana euskarri fisiko edo magnetikoan, ikusirik bata ala bestea, zein den egokiena.

2.– Jasotako diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa aurkeztuta ere, erakunde onuraduna behartuta egongo da unean uneko faktura jatorrizkoak, fotokopia konpultsatuak edo egindako gastuen gaineko edo jarduera gauzatzeari buruzko dokumentazioa aurkeztera, hala eskatzen dionean bai diru-laguntza ematen duen organoak bai indarreko legeriaren arabera ahalmen hori aitortua duten gainerako organoek ere, beti ere diru-laguntzaren destinoa zuzena eta egokia izan dela egiaztatze aldera.

22. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere diru-laguntzaren xedea bete bada– edo beste erakunde publiko zein pribatuetatik beste laguntzarik jaso bada, laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol zuzendariak dagokion kitapen-ebazpena emango du, emandako diru-zenbatekoak doitzeko.

23. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueren bestelakoe-tan erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezar-tzen direnak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea, hala badagokio.

d) Beste xedapenen batek izaera orokorrez ezarritako beste edozein obligazio betetzen ez denean.

2.– Diru-laguntzen erakunde onuradunek baldintzetako bat betetzen ez badute, Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Gazteria eta Kirol zuzendariak, interesdunari entzuteko bidezko prozedura gauzatu eta gero, deklaratu du interesdunak galduko duela jasotzeko dituen diru-kopuruak jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, laguntza ordaindu zenetik jasotako zenbatekoak eta legeko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkiola, bidezkoak diren gainerako jarduketan kalterik gabe, Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira legeko ondorioetarako, eta erantzukizun-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak fitxategi batean jasoko dira. Ayudas y Subven. Dirección Juventud izeneko fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen entitate arduraduna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Gazteria eta Kirol Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko

2014ko urriaren 24a, ostirala

beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako baka-
rrik, eta Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan
aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze-
errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari
hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko
auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi
hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sor-
tuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 22a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.